


FUNTSEZKO ELKARTEAK:

- Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure proiektua aurrera eramateko, logikoki, hornitzaileak behar izango ditugu. Hauei produktuak erosiko dizkiegu gero gure saltzeko. Horretarako, honako hauek izango dira behar ditugun bazkide eta hornitzaile nagusiak proiektuak funtziona dezan:



-Hodiak: Gure proiektuan, hodiak kostu aldakorak izango dira; eskatzen diguten obren arabera gehiago edo gutxiago erosiko ditugu, hori bai, kopuru handietan. Hauek material desberdinekoak izan daitezke, kobrezkoak, plastikozkoak, burdinezkoak...

-Torlojuak: Torlojuak, azkoinak eta beharrezkoak diren hodi lotura guztiak 'Ciser' izeneko enpresari erosiko dizkiegu. Enpresa honek euskal herrian ditu dendak, beraz, haiekin kontaktuan jarri eta hilero edo sei hilero torlojuak erosiko dizkiegu. Hauek kopuru edo multzo handietan erosita, ekonomikoki errentagarriagoa izango da.

-Rocaren eskutik komun-ontziak izango genituzke, baita tuberiak ere. Gure hornitzaile guztien laguntzarekin proiektua aurrera eramango genuke eta horrela ingurumena zaintzearen aldeko plan erakargarri bat sortu.

-Sistema kokatzea: Iturgina, teknikariak...ezinbestekoak izango dira proiektu honetan, bere laguntzarekin, hodiak jarriko ditugulako eta depositua kokatuko genuke komun bakoitzean. Iturgina eta materialen garraioa batera joango lirateke Rocaren enpresaren eskutik.

- Zergatik dira garrantzitsuak guretzat?

Dakigunez, Roca, enpresa nazionala da, beraz ekonomikoki ondo datorkie haiei guri laguntzea, ideia berritzailea delako baita ingurumena hobetzen lagunduko duelako. Beraz beraientzat ona da gure proiektua aurrera eramatea. Guretzat aukera ona izango litzateke haiek gu laguntzea, lehen esan dugunez enpresa nazionala delako eta gendeak hain bainuak erosten dituztelako. Proiektua hau

aurrera eramanez gero, Roca enpresa ezagunagoa izan liteke eta horrela mundu mailan ospea lortu, eta haien salmentak handitu dezakete, horrekin batera haien diru-sarrerak baita ere.